

BI MILA ETA HAMALAUKO OTSAILAREN HAMAHIRUAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. /ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ EL TRECE DE FEBRERO DE DOS MIL CATORCE

2014ko otsailaren 13an, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak Osoko Bilkura Berezira arauzko moduan deituta, lehenengo deian osatu da, JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA alkatea mahaiburua dela, eta honako zinegotzi hauek bertaratuak:

En Etxarri-Aranatz y casa consistorial, siendo las veinte horas del día 13 de febrero de dos mil catorce se reúnen los concejales en sesión plenaria extraordinaria, tras haber sido convocada la misma en forma legal, bajo la presidencia de la Sra. Alcalde-Presidente D. Jose Ignacio Bakaiko Aristorena y con la asistencia de los siguientes concejales:

Bertaratu direnak / Asisten:

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.
ENEKA MAIZ ULAYAR and
EDURNE IGOA LIZARRAGA and
KITZ MENDIOLA BARANDALLA and.
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.
MAIDER GOÑIERRAZKIN and
JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

Bertaratu ez direnak / No asisten:

**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.
IKER MARIÑELARENA GALARZA jn.
ARANTZA ARTIEDA IGOA and.**

Idazkaria /Secretaria: Silvia Gonzalo Etxarri

Alkateak azaldu du, aurreko bileran eskatu zen bezala, gaurko bilkuran Koldo Azkonak, Sakanako Mankomunitateko itzultzialeak, ahozko itzulpena egingo duela.

A continuación el alcalde informa que tal y como se solicitó, en la sesión de hoy se encuentra presente el traductor de la Mancomunidad de Sakana, Koldo Azkona, quien realizará las traducciones.

Bilkura grabatuko da.

Se grabará la sesión.

1.- AURREKO AKTAK/ Actas anteriores

Alkateak bilkurari hasiera eman dio, eta deialdiarekin batera banatu zen 2014ko urtarrilaren 13an egindako Osoko Bilkuraren

El Sr. Presidente levanta la sesión, y se aprueba el acta de la sesión celebrada el 13 de enero de 2014 repartida junto a la convocatoria.

akta onartu da.

2.- Andra Mari Ikastolak sustatutako Xehetasun Aztelana behin betiko onestea /

Aprobación definitiva de Estudio de Detalle promovido por Andra Mari Ikastola

2013ko urriaren 22an Igor Artieda Galdeano jaunak Andra Mari Ikastolako Guraso Elkartearren izenean aurkeztu zuen Utzubartxiki lursaileko kontzesioa dagoen partzelari buruzko xehetasun azterlana.

Udal arkitektoaren txostena oinarri harturik hasiera batez onetsi zen.

Hasierako onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu zen, eta espedientea jendaurrean egon zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluak agintzen duen moduan. Jendaurreko epean ez da alegaziorik izan.

Kontuan harturik arkitektoaren aldeko txostena eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluak dioena, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

1.-Xehetasun azterlana behin betikoz onestea.

2.-Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari jarraikiz, behin betiko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta onetsitako dokumentuaren kopia bat Nafarroako Gobernura igorriko da.

3.-Espedienteak sortu dituen gastu guziak sustatzailearen kontu dira: tramitazio tasa 415 eta prentsako iragarkien gastua 695,27 € Ordainketa zerorrek egin beharko duzu ordainketa honako kontu hauetan: EUSKADIKO KUTXA ES66 3035 0116 99 1160900003 CAIXA ES87 2100 5345 83 2200028746 BANCO POPULAR ES28 0075 4643 56 0660000173 RURAL KUTXA: ES40 3008 0045 91 2155688423. Aipatutako data pasata, ordainagiriak Agentzi Exekutibora bidaliko direla, kobratzea premiamendu-bidetik burutzeko, Tributuen Foru Lege Orokorraren 117. artikulan ezartzen diren errekarguekin.

4.-Akordioa sustatzaileari jakinaraztea, jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan.

Con fecha 22 de octubre de 2013 D. Igor Artieda Galdeano presentó en nombre de la Asociación de Padres de Ikastola Andra Mari un Estudio de Detalle relativo a la parcela otorgada en concesión en el paraje de Utzubartxiki.

En base al informe del técnico municipal, se aprobó inicialmente el citado Estudio de Detalle.

La aprobación inicial se publicó en el Boletín Oficial de Navarra y en la prensa y estuvo en exposición pública tal y como establece el artículo 76 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo. Habiendo transcurrido el período de exposición pública no se han producido alegaciones.

Teniendo en cuenta el informe favorable del arquitecto municipal y dado que ninguna parcela es afectada negativamente, de conformidad con lo establecido en la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo (artículo 76), el Pleno por unanimidad de los presentes, ACUERDA:

1.-Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle presentado.

2.-En cumplimiento de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo esta aprobación definitiva se publicará en el Boletín Oficial de Navarra. Además se trasladará copia del documento aprobado al Gobierno de Navarra.

3.-Todos los gastos derivados del expediente, serán a cargo del promotor: Prensa 695,27 € y tasa tramitación 415 €.

Que deberá ser ingresada por Ud cuando comience la obra en alguna de las siguientes cuentas bancarias CAJA LABORAL ES66 3035 0116 99 1160900003 CAIXA ES87 2100 5345 83 2200028746 BANCO POPULAR ES28 0075 4643 56 0660000173 CAJA RURAL: ES40 3008 0045 91 2155688423. Transcurrida dicha fecha, se remitirán los recibos a la Agencia Ejecutiva, para su cobro, por vía de apremio, con los recargos establecidos en el art. 117 de la Ley Foral General Tributaria.

4.-Trasladar el presente acuerdo al promotor y interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

3.- 2012KO EKAINAREN 21eko ADIERAZPENA BERRESTEA / Ratificación de declaración de 21 de junio de 2012

Ikusirik Juan Antonio Extremera udal zinegotziak mehatxuak salatu dituela, Alkateak proposatu du 2012ko ekainaren 21eko adierazpena berreste, eta aurkeztutako idazkia irakurri du. Udalatzak aho batez honako akordio hau onartu du:

“Ikusirik Etxarriko Udaleko hautetsi den Juan Antonio Extremerak berriki mehatxuak salatu dituela, Etxarriko Udalatzak 2012ko ekainaren 21ean aho batez onartutako adierazpena berresten dugu, egon diren eraso, irain eta mehatxu guztien harira:

Etxarriko Udalak:

- Salatu egiten ditu Etxarriko udaleko kideek jasandako eraso, irain eta mehatxu guztiak.
- Babes osoa ematen die eraso, irain eta mehatxuak jasan dituzten hautetsi eta langile guztiei, eta bat egiten du beraiekin.
- Konpromisoa hartzen du, mehatxuak mehatxu, beharrezkoak diren erabaki administratiboak hartzen jarraitze, eta beharrezkoak diren praktika politikoak zintzotasunez eta zorroztasunez gauzatzeko, elkarlanaren eta parte-hartzearen bidez.
- Dei egiten die etxarriar guztiei, elkarbitzaren alde eta gizarte demokratiko bat eraikitzearen alde lan egin dezaten, irainak eta probokazioak alde batera utzita.

A la vista de la denuncia interpuesta por el concejal de este ayuntamiento Juan Antonio Extremera por haber recibido amenazas, el Alcalde propone ratificar el acuerdo de 21 de junio de 2012 y lee el escrito presentado. El Pleno por unanimidad de los presentes acuerda lo siguiente:

“Teniendo en cuenta que el edil del Ayuntamiento de Etxarri Juan Antonio Extremera ha denunciado recientemente haber recibido amenazas, ratificamos la declaración que el Pleno del Ayuntamiento de Etxarri aprobó por unanimidad el 21 de junio del 2012. En relación a todas las agresiones, insultos y amenazas que se han producido:

El Ayuntamiento de Etxarri:

- Denuncia las agresiones, insultos y amenazas recibidos por todos los miembros del Ayuntamiento de Etxarri.
- Muestra su total apoyo a los todos/as los/las ediles y empleados/as que han sido víctimas de esas agresiones, insultos y amenazas.
- Adquiere el compromiso, a pesar de las amenazas, de seguir tomando las decisiones administrativas que sean necesarias y de desempeñar las prácticas políticas que sean pertinentes, con total sinceridad y rigurosidad, mediante la colaboración y la participación.
- Hace un llamamiento a todos/as los/las etxarriarras a que trabajen por una sociedad democrática, dejando a un lado las agresiones y las provocaciones.

4.- BILDU-NABAI AURKEZTATUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: ESPAINAKO BANDERA / Declaración institucional presentada por BILDU y NABAI

Alkateak Bildu eta Nabai udal taldeen izenean aurkeztutako mozioren berri eman du, eta Maider Goñi andereak irakurri egin du.

Proposamenaren testua:
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
Nafarroako Adminsitrazioarekiko 2.
Epaitegiak, 113/2013 eta 807/2013 epainen

El Alcalde, en nombre de los grupos municipales Bildu y Nabai presenta la moción y Dª Maider Goñi procede a su lectura.

*Texto de la propuesta:
DECLARACIÓN INSTITUCIONAL
Mediante las sentencias 113/2013 y 807/2013, el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 2 ha obligado al Ayuntamiento*

bidez Spainiako bandera jartzera behartu du Etxarri Aranazko Udalak. Hori ikusirik, Etxarriko Udalbatzak honako adierazpen instituzionala egiten du:

Spainiako bandera legearen indarraren mehatxuean jarri da Etxarriko Udaletxeen, bertako herritarren borondatearen kontra. Adierazten dugu inposizio hori egintza antideomokratiko hutsa dela, herritarren identitate askatasunaren kontra dagoena. Ez da zilegia herri oso bati berea ez den izaera behartuta ezartzea, eta horrek makurtu nahi gaituztenen menderatzeko nahia eta ezina besterik ez du adierazten.

Adierazten dugu ikur hori ez dugula geuretako hartzen, behartutako banderak ez baitira bandera, eraso politikorako tresna baizik.

Amaitzeko, etxarriar guztiei gonbitea luzatzen diegu gure nahia errespetatuko duen egoera politiko-administratibo berri baten alde lan egiten jarraitzeko.

Juan Antonio Extremera jaunak hitza eskatu du, eta honako hau esan du: Spainiako bandera betidanik egon beharko zen, Europa, Nafarroa eta herriko banderekin batera, Etxarri Aranatz Spainiako herria delako. Hura jartzea legea betetzea da, gurea delako eta Espaina delako.

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotziak kontra.

Hori dela eta, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du.

de Etxarri Aranatz a colocar la bandera española. En vista de ello, la Corporación Municipal del Ayuntamiento Etxarri Aranatz realiza la siguiente declaración institucional:

La bandera española ha sido colocada en el Ayuntamiento de Etxarri mediante la amenaza de la fuerza de lay, y en contra de la voluntad de los ciudadanos/as de la localidad. Por tanto, declaramos que dicha imposición no es mas que una actuación antidemocrática, absolutamente contraria a la libertad identitaria de nuestros ciudadanos/as. No es legítimo imponer a todo un pueblo una identidad que no es la suya, y eso no hace más que dejar en evidencia el vano empeño de sometimiento demostrado por quienes desean pero no pueden doblegarnos.

Igualmente, declaramos que dicho signo no lo consideramos propio, ya que las banderas impuestas no son banderas, sino instrumentos de agresión política.

Finalmente, invitamos a todos los vecinos/as de Etxarri a continuar trabajando por una nueva situación político-administrativa que respete la voluntad de nuestro pueblo.

Pide la palabra al señor D. Juan Antonio Extremera y dice que la bandera española tenía que haber estado siempre porque Etxarri Aranatz es un pueblo de España y debe estar junto con la bandera Europea, la de Navarra y la de la localidad. Colocarla es cumplir la ley porque es nuestra y porque es España.

Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDU y NABAI y en contra del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.

5.-BILDUREN MOZIOA: LIBURUTEGI ETA OSASUN ETXEETAN HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO / Moción presentada por

Bildu: Respeto de derechos lingüísticos de ciudadanos en bibliotecas y centros de salud

Alkateak bere taldeak, BILDUk, aurkeztu duen idazkiaren berri eman du. Eta aurretik banatu denez, eztabaidarako txanda ireki du.

Juan Antonio Extremerak esan du informatu diotela arazoa dela baldintzak betetzen dituen nahiko langile ez egotea, eta daudenak, aukera dutenean, zonalde mixtora edo Iruñerria joaten

El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por su grupo BILDU y, al haber sido repartido con anterioridad, abre turno de debate.

Juan Antonio Extremera dice que según le han informado no hay suficientes personas que cumplan los requisitos y, los que hay vienen luego se van a a la zona mixta o a Pamplona. No

direla. Antza denez, ez dute hemen lan egin nahi.

Maider Goñi zinegotziak esan du liburutegietarako ez dela hizkuntza eskakizunik, azken garai honetan aldatu ez baldin bada gutxienez.

Eneka Maiz esan du Etxarri Aranazeko Osasun Etxean euskaldun gehiago dagoela plantilla eskatzen dena baino. Nahi duenean biltzeko aukera eman dio bakoitzak daukan informazioa trukatzeko.

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotzia abstenitu egin da.

Hori dela eta, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du.

Mozioaren testua:

Nafarroako udalerri euskaldunetako liburutegi eta osasun etxeetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eskaera

Legeak herritarrei administrazio publikoarekin euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen badie ere, Nafarroako udalerri euskaldunetako osasun etxe eta liburutegietan ez da euskarazko zerbitzurik bermatzen. Errealitate horrek, herritarren hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, euskararen normalizazioa kaltetzen du.

Legeari erreparatzen badiogu, Foru hobekuntza, 13/1982 lege organikoaren 9. artikuluak dio euskara ofiziala izango dela Nafarroako zonalde euskaldunetan. Eta Nafarroako Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 6. artikuluak herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaiela dio.

Gure udalerria UEMAn sartuta dago, eta gure herritarren % 70etik gora euskaldunak dira. UEMAre eta gure udalerriaren helburuetako bat da gure herritarren bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz egin ahal izateko eskubidea bermatzea. Tartean sartzen da osasun-zerbitzua eta liburutegietako zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Gune horietan zerbitzu euskalduna bermatzetik urrutti gaude oraindik, izan ere, oraindik oztopo asko ditugu euskaraz artatuak izateko.

Eremu Euskalduneko liburuzainei dagokionez, adibidez, liburuzaineek ez dute

parece que quieren quedarse.

La concejal Maider Goñi dice que la pra las bibliotecas no existe perfil lingüístico. A no se que haya cambiado ultimamente.

Eneka Maiz añade que en el Centro de Salud de Etxarri Aranaz hay más vascoparlantes que los establecidos en plantilla. Cuando quiera ofrece la posibilidad de reunirse para contrastar información.

Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDÚ y NABAI y abstención del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.

Texto de la moción

Demanda de garantía de los derechos lingüísticos de los ciudadanos en las bibliotecas y centros de salud de los municipios vascófonos de Navarra

Aunque la ley reconoce a los ciudadanos el derecho de utilizar el euskera en sus relaciones con las Administraciones Públicas, en la práctica no se garantiza en euskera el servicio de los centros de salud y bibliotecas de los municipios vascófonos de Navarra. Esta realidad, a parte de vulnerar los derechos lingüísticos de los ciudadanos, daña el proceso de normalización lingüística del euskera.

Si nos remitimos a la legislación vigente, el artículo 9º de la Ley Orgánica 13/1982 de Amejoramiento del Fuero establece que el euskera será oficial en la Zona Vascófona de Navarra. Igualmente, la Ley Foral 18/1986 del Vascuence, en su artículo 6º, reconoce a todos los ciudadanos el derecho a utilizar tanto el vascuence como el castellano en sus relaciones con las Administraciones Públicas de Navarra.

Nuestro municipio es miembro de UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes), y el 70% de nuestros vecinos es vasco-hablante. Uno de los objetivos principales tanto de UEMA como de nuestro municipio es garantizar el derecho de que toda la vida social de nuestros ciudadanos, tanto pública como privada, pueda desarrollarse en euskera. Dentro de ese objetivo entra de lleno la opción de poder recibir en euskera los servicios del centro de salud y biblioteca.

A día de hoy, todavía estamos lejos de garantizar el uso del euskera en de dichos servicios, ya que son muchos los obstáculos a superar para poder ser atendidos en dicha lengua.

En lo que respecta a los bibliotecarios de la Zona Vascófona, por ejemplo, sus puestos de trabajo no poseen un perfil bilingüe dentro de la Plantilla Orgánica. El Gobierno de Navarra carece de plan alguno para euskaldunizar a los bibliotecarios con plaza fija, así como para destinar trabajadores bilingües en las

profil elebiduna Plantilla Organikoan, ez dago inolako planik Nafarroako Gobernuaren aldetik dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainak euskalduntzeko, ez da aurreikusten, ezta ere, elebidunak diren liburuzainen ordezkoetan langile elebidunak egotea.

Osasun- zerbitzuan erreparatuz gero, eremu euskalduneko Osasun Etxeetako lanpostuen hizkuntza profilek ez dituzte bermatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak, eskatutako euskara mailak ez du ziurtatzen euskararen gaitasuna eta lanpostu elebidunen ordezkoak egiterakoan jarraitzen diren irizpideak ez du ziurtatzen langile elebiduna ezarriko dela, besteak beste.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren “Euskararen telefonoa” zerbitzuan asko izan dira hizkuntza eskubideak urratzeagatik herritarrek jarritako kexa eta erreklamazioak. Aipatzeko da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren txostenetan Behatokia erreferente zuzena izaten dela, eta bere urteroko txostenean Behatokiak jasotzen dituen salaketak txertatzen dituela. 2010ean, Nafarroako Arartekoak elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruz argitaratu zuen txostenean, Nafarroako Gobernuari hainbat gomendio eta iradokizun egiten dizkio; besteak beste, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua goitik behera berraztertea.

UEMAK bere aldetik hainbat bilera egin ditu egoerari konponbidea eman nahian, egoeraren diagnostia egin eta eskakizun zehatzak eginez. Baino oraindaino ez du erantzunik jaso.

Hori horrela, azaroaren 19an UEMAK, OEEk, eta ASNABIk Osasunbidean eta liburutegietan euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko Nafarroako Parlamentuari aurkeztutako eskakizunak kontuan har ditzala eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eman beharreko pausuak eman ditzala eskatzen dio Etxarri Aranazko Udalak.

Honakoak izan ziren egindako eskariak: Osasunbideari:

▲ Eremu Euskalduneko Osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzear. Lehentasunez pediatra, mediku eta jendaurrean lan egiten

sustituciones de bibliotecarios con capacidad de expresarse en las dos lenguas cooficiales.

Analizando el servicio de salud más en profundidad, los perfiles lingüísticos de las plazas de los Centros de Salud de la Zona Vascófona no garantizan los derechos lingüísticos de la población vasco-hablante. De hecho, el nivel de euskera exigido no garantiza la aptitud suficiente en el conocimiento del euskera, y el criterio seguido a la hora de realizar las sustituciones de las plazas bilingües no asegura que un trabajador bilingüe ocupe dicho puesto de trabajo, entre otros.

En el servicio “Teléfono del euskera” del Observatorio de los Derechos Lingüísticos, se han recibido numerosas quejas y reclamaciones por vulneraciones de los citados derechos. Igualmente, no hay que olvidar que el informe del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra es un referente directo de ello, y que en su informe anual registra las denuncias recibidas por el Observatorio. El informe del Defensor del Pueblo de Navarra, publicado en el año 2010, sobre el bilingüismo y la situación de los derechos lingüísticos, realiza una serie de recomendaciones y sugerencias al Gobierno de Navarra. Entre otras, propone revisar en su totalidad el Decreto Foral 29/2003, de 10 febrero, que reglamenta el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra.

Por su parte, UEMA ha celebrado diversas reuniones a fin de dar una solución al problema surgido, así como para, partiendo de un diagnóstico de la situación, realizar una serie de demandas concretas. No obstante, a día de hoy no ha recibido respuesta alguna.

Así, el 19 de noviembre, UEMA, OEE y ASNABI solicitaron al Parlamento de Navarra que tome en cuenta las peticiones realizadas cara a garantizar los derechos lingüísticos del vasco-hablante en Osasunbidea y bibliotecas públicas. Igualmente el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz solicita a la Cámara Foral que de los pasos necesarios para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

Estas han sido las peticiones realizadas:

A Osasunbidea:

▲ En los centros de salud de la Zona Vascófona, establecer un perfil bilingüe en los puestos de trabajo que no lo tienen. Prioritariamente en las plazas de pediatras, médicos y trabajadores que prestan su servicio cara al público.

6. Establecer un perfil bilingüe en los puestos de trabajo de las plantillas de los Centros de Atención a la Mujer de la Zona Vascófona

7. Visto que el nivel de conocimiento V1 es escaso, pedir para dichas plazas el nivel V3.

8. Garantizar que se destinen trabajadores bilingües en las sustituciones de las plazas con euskera.

duten langileei.

1. Eremu Euskalduneko Emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuei plantilla organikoan eskakizun elebiduna jartzea.

2. V1 jakite maila eskasa dela ikusirik, lanpostu horietan V3 jakite maila eskatzea.

3. Euskarazko plazen ordezkoetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.

4. Gainerako arloetan, urratsak ematen hastea: paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzordua jartzeko SMS mezuak, bajaagiriak...

5. Urgentziak Zerbitzuetako langileen hizkuntz perfilak zehaztea.

Kultura Sailari:

- Eremu Euskaldunean profil elebiduna ez duten liburuzainen lanpostuei profil elebiduna jartzea.

▲ Profil hori C1 mailakoa izatea.

▲ Dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainen kasuan, horiendako euskalduntze plan bat diseinatzea.

▲ Eremu Mistoko zenbait lanposturi profil elebiduna paratzea; batez ere liburuzain bat baino gehiago dauden liburutegietan.

▲ Plaza elebidunen ordezkoetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.

▲ Liburuzain guztiei, oro har, euskara ikasteko erraztasunak ematea.

▲ Nafarroako Gobernuak Liburutegien Sareko udalekin eginak dauzkan hitzarmenetan hizkuntzaren erabilerari buruzko irizpideak ezartzea: liburu eta materialak hornitzea, paisaia linguistikoa, informazio-orriak, aplikazio informatikoa...

Horiek horrela, Etxarri Aranazko Udalak mozio hau onartzen du:

1.- UEMAK Nafarroako Parlamentuari egindako eskaerak bere egitea.

2.- Gure udalerrian herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko urratsak emateko plangintza eta epeak zehaztea.

3.- Eskaera horiek Nafarroako Parlamentuari, Kultura saileko presidenteari eta Osasun saileko presidenteari bidaltzea. Parlamentuari bi arlotako eskaerak eta Kultura eta Osasun sailari bakoitzari dagozkionak.

9. Comenzar a dar pasos en los siguientes ámbitos: paisaje lingüístico, hojas informativas, citaciones de mamografías, informes de mamografías, encuestas del servicio de radiografía, mensajes SMS de las citaciones, partes de baja...

10. Establecer los perfiles lingüísticos de los trabajadores de los Servicios de Urgencia.

Al Departamento de Cultura:

- Establecer un perfil bilingüe en las plazas de la Zona Vascófona que no lo tengan.

▲ Que dicho perfil sea el C1.

▲ En el caso de los bibliotecarios que tienen plaza fija, diseñar para ellos un plan de aprendizaje del euskera.

▲ Establecer un perfil bilingüe en diversas plazas de la Zona Mixta; sobre todo en las bibliotecas en las que hay más de un bibliotecario.

▲ Garantizar que se destinan trabajadores bilingües en las sustituciones de las plazas con euskera.

▲ En general, proporcionar a todos los bibliotecarios una serie de facilidades para poder estudiar euskera.

▲ Establecer una serie de criterios sobre el uso de la lengua en los acuerdos que el Gobierno de Navarra tiene establecidos con la Red de Bibliotecas Municipales: suministrar libros y materiales, paisaje lingüístico, hojas informativas, aplicaciones informáticas...

Por todo ello, el Ayuntamiento de Etxarri Arantz aprueba la siguiente moción:

1.- Hacer suyas las peticiones realizadas al Parlamento de Navarra.

2.- Determinar la planificación y los plazos de los pasos que es preciso dar para garantizar los derechos lingüísticos de todos los vecinos de nuestro municipio.

3.- Remitir dicha petición al Parlamento de Navarra, así como a los consejeros de los Departamentos de Cultura y Salud. Al Parlamento las demandas sobre ambos temas, y a los Departamentos de Cultura y Salud las correspondientes a cada uno de ellos.

6.-BILDUREN MOZIOA: EGUNGO SAKABANAKETAREKIN ETA ESPETXE POLITIKAREKIN AMAITZEKO GARAIA DA / Moción de BILDU: Es hora de terminar con la dispersión y esta política penitenciaria

Alkateak bere taldeak, BILDUk, aurkeztu duen idazkiaren berri eman du.

Juan Antonio Extremerak esan du egia dela preso bat hil dela eta familiari doluminak ematen dizkiola. Baino gobernu ez da erruduna, heriotza naturala izan baita.

Berak aukera izan zuen egin zuena gaizki zegoela aitortzeko, atentatuak kondenatzeko eta poliziari laguntzeko; egin izan balu, kalean egongo litzateke.

Miguel Angel Goñi jaunak esan du Gobernuak kartzeletan gertatzen denaren arduraduna dela, jabea izanda erruduna delako.

Eneka Maiz zinegotziak Juan Antonio Extremerari galdu dio ea gobernuaren ordezkari zuzena den, halako baieztapen zuzenak botatzeko. Extremera jaunak erantzun dio berak esandakoa dela, gutxi gorabehera, gobernuak esaten duena.

Ondoren gaia bozkatu da: Bildu eta Nabaiko zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alderdi Popularreko zinegotziak kontra.

Hori dela eta, Udalbatzak erabaki du mozioa onartzea.

Mozioaren testua:

“Sakabanaketa eta espelte politika honekin amaitzeko garaia da

Arkaitz Bellon preso elorriotar gaztearen heriotzaren berri lazgarria jaso genuen atzo. Gaur, egoeraren larritasunak eta urgentziak hala aginduta, Udal honetatik zera adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu Arkaitz Bellonen senide eta lagunei. Une lazgarri hauetan, gure babes eta berotasuna adierazi nahi dizkiegu.

Bere herritik mila kilometrotara hil da Arkaitz Bellon, Puerto I-eko espeltean, zigorraren 2/3 beteta izan arren. Beraz, kalean egon behar zen. Mila kilometro hauen atzean dagoen errealityeari errepasatzen badiogu, giza eskubideen urraketa eta mendekuan oinarritutako espelte politika gizagabe eta krudela da gaur egun protagonista nagusia, eta Arkaitzen heriotzaren erantzule zuzena.

El Sr. Alcalde informa sobre el escrito presentado por su grupo BILDU y abre turno de debate.

Juan Antonio Extremera dice que es cierto que ha muerto un preso y expresa sus condolencias a la familia. Pero ha sido una muerte natural, no es por culpa del Gobierno

Él tuvo la posibilidad, como todos, de reconocer que lo que hizo estaba mal, de condenar atentados y ayudar a la policía, si lo hubiera hecho podría haber salido.

El Sr. Miguel Angel Goñi dice que el Gobierno es el responsable de lo que ocurra en la cárcel, porque es el propietario y el propietario es el culpable.

La concejal Eneka Maiz le pregunta a Juan Antonio Extremera si es el representante directo del gobierno para realizar esas afirmaciones tan directas. El Sr. Extremera contesta que más o menos él dice lo mismo que ha dicho el gobierno.

Acto seguido se procede a la votación (votos favorables de BILDU y NABAI y en contra del Partido Popular) siendo aprobada la moción por el pleno.

Texto de la moción:

“Es hora de terminar con la dispersión yesta política penitenciaria

Ayer recibimos la terrible noticia del fallecimiento del joven preso elorriotarra Arkaitz Bellón. Ante la gravedad y urgencia de este hecho, desde este Ayuntamiento queremos manifestar lo siguiente:

En primer lugar, queremos trasladar toda nuestra solidaridad a familiares y amigos y amigas de Arkaitz Bellón. En estos duros momentos, les queremos trasladar todo nuestro apoyo y nuestro más sentido abrazo.

Arkaitz Bellon ha muerto a mil kilómetros de su pueblo, en la cárcel Puerto I, tras haber cumplido ya las 2/3 partes de su condena. Por lo tanto, hablamos de una persona que debía estar ya en libertad.. La realidad que se encierra tras esos mil kilómetros es la de una política penitenciaria inhumana, basada en la venganza y en la vulneración de derechos básicos, una política penitenciaria que es la responsable directa de esta muerte.

Esta situación siempre ha sido absolutamente injusta, pero ante la nueva realidad que se vive en nuestro pueblo, el mantenimiento de esta política es totalmente

Egoera hau beti izan baldin bada bidegabea, berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen da gure herrian zabaldu den errealitate berrian. Arkaitzi gertatutakoa, edonori edonoiz gerta dakioke eta ez du gehiago gertatu behar.

Gauzak honela, salbuespeneko espelte politika honekin eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Sakabanaketa eta espelte politika honekin amaitzeko garaia da. Aski da esateko unea da.

Horretarako, eskaera hau luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugun indarrek bat egitea eta kalera ateratzea, sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

Ondorioz, “Espelte politika honi ez, sakabanaketa amaitu” lelopean, hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek deitutako mobilizazioetan parte hartzen gonbidatzen ditugu herritarrak.

Egun indarrean dagoen espelte politika eta sakabanaketarekin amaitzeko gu guztiok beste urrats bat egitera goaz eta horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu”

Eta beste gairik ez dagoenez, 20:16an presidenteak Osoko Bilkura amaitutzat eman, eta idazkariarekin batera akta sinatu du. Idazkariak horren fedea ematen du.

inadmisible. Lo que le ha ocurrido a Arkaitz le puede pasar a cualquier preso/a en cualquier momento y no debe suceder más.

Así, exigimos el fin de la dispersión y de esta política penitenciaria de excepción, asumiendo la reivindicación mayoritaria de nuestro pueblo. Es hora de terminar con la dispersión y esta política penitenciaria. Es el momento de decir ¡basta ya!

Para ello, además de manifestar nuestra exigencia, consideramos más necesario que nunca el que se sumen las fuerzas de los que apostamos por el respeto de todos los derechos. Sumar fuerzas y salir a la calle, para terminar de una vez por todas con todo este sufrimiento.

Así, queremos invitar a la ciudadanía a participar en las movilizaciones convocadas por diversos agentes políticos, sindicales y sociales, con el lema “Espelte politika honi ez, sakabanaketa amaitu!”.

Vamos a dar otro paso para terminar de una vez por todas con la dispersión y esta política penitenciaria, y llamamos a la sociedad a que se sume a las convocatorias.”

Siendo las 20:16h y no habiendo mas temas a tratar se levanta la sesión por parte del Alcalde Presidente, firmando el acta conmigo el Secretario que certificó.

